

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

3671

68/2022 EBAZPENA, uztailaren 27koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoan ospitaleetako erikortasun-inkesta egiteko Estatistikako Institutu Nazionalaren eta Euskal Estatistika Erakundearen arteko hitzarmenaren luzapen-gehigarria argitaratzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak hitzarmen horren luzapen-gehigarria sinatu du, eta behar bezalako zabalkundea emateko, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Euskal Autonomia Erkidegoan ospitaleetako erikortasun-inkesta egiteko Estatistikako Institutu Nazionalaren eta Euskal Estatistika Erakundearen arteko hitzarmenaren luzapen-gehigarriaren testua. Ebazpen honen eranskin gisa agertzen dena.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 27a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JON IÑAKI URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN UZTAILAREN 27KO 68/2022 EBAZPENARENA

ESTATISTIKAKO INSTITUTU NAZIONALAREN ETA EUSKAL ESTATISTIKA ERAKUNDEAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN LUZAPEN-GEHIGARRIA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN LURRALDE-EREMUKO OSPITALEETAKO MORBILITATEAREN INKESTA EGITEA XEDE DUENA

Alde batetik, Juan Manuel Rodríguez Poo jauna, Estatistikako Institutu Nazionaleko presidentea, urriaren 22ko 1325/2018 Errege Dekretuaren bidez izendatua, erakunde horren izenean eta hura ordezkatzuz, eta Funtzio Estatistiko Publikoari buruzko maiatzaren 9ko 12/1989 Legearen 28.3 artikulua ematen dizkion eskumenak erabiliz, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48.2 artikulua arabera.

Eta bestetik, Josu Mirena Iradi Arrieta jauna, Euskal Estatistika Erakundeko zuzendari nagusia, abenduaren 31ko 419/2012 Dekretuaren bidez izendatua, organismo horren izenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legeak emandako eskumenak baliatuz eta bat etorritik Gobernu Kontseiluak 2022ko ekainaren 7an egindako bileran emandako baimenarekin.

Bi alderdiek, duten ordezkartzan, hitzartzeko eta hitzartzeko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta

AZALTZEN DUTE:

Lehenengoa.– 2018ko ekainaren 9an, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) eta Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) hitzarmen bat sinatu zuten ospitaleetako morbiditatearen inkesta egiteko Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan. Eragiketaren eremua akutuen ospitaleetara, egonaldi ertain eta luzeko ospitaleetara eta ospitale psikiatrikoetara hedatzen da, eta ospitaleratzea eragiten duten altetara mugatzen da.

Hauek dira eragiketa honen helburu nagusiak: ospitaleetan artatutako morbiditate orokorra eza-gutzea alta-kopuruaren bidez diagnostiko nagusiaren arabera; ospitaleko batez besteko egonaldia zehaztea ospitaleko altari lotutako diagnostiko nagusiaren arabera; ospitaleko pazienteen ezau-garri soziodemografikoak eta bizilekua eza-gutzea, eta azterketa epidemiologikoen oinarri izatea.

Bigarrena.– Lankidetzaren horren emaitzak onak izan dira bi alderdientzat.

Hirugarrena.– Laugarren klausulak, indarraldiari buruzkoak, xedatzen du hitzarmena eraginkorra izango dela Estatuko sektore publikoko Lankidetzaren Organo eta Tresnen Estatuko Erregistro Elektronikoan inskribatzen denean eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean, eta lau urtez egongo dela indarrean.

Laugarrena.– Hitzarmena 2018ko uztailaren 13an argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean, eta, beraz, 2022ko uztailaren 14an amaituko da haren indarraldia.

Bosgarrena.– Aipatutako laugarren klausulak jasotzen du, halaber, hasierako aldi hori luzatzeko aukera, alderdiek hala adosten badute, iraupen bereko aldi bakar baterako.

Seigarrena.– Alderdien borondatea da Hitzarmenean araututako lankidetzarekin jarraitzea. Beraz,

ADOSTEN DUTE:

Lehenengoa.– Lau urtez luzatzea Estatistikako Institutu Nazionalaren eta Euskal Estatistika Erakundearen arteko lankidetzaz hitzarmena, ospitaleetako morbiditatearen inkesta egitea xede duena Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan.

Bigarrena.– Sektorre Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49.h) artikuluan ezarritakoaren arabera, hitzarmenaren luzapen-gehigarri honek 2022ko uztailaren 14tik aurrera izango ditu ondorioak, formalizatu eta bost egun balioduneko epean Estatuko sektore publikoko lankidetzaz-organoren eta -tresnen Estatuko erregistro elektronikoan inskribatu ondoren, lege beraren 48. artikuluan eta zazpigarren xedapen gehigarriaren 2. apartatuan ezarritakoaren arabera. Era berean, gehigarri hau Estatuko Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko da, formalizatzen denetik hamar egun balioduneko epean.

Hirugarrena.– Hitzarmenaren klausulak aldatu gabe uztea.

Eta ados daudela adierazteko, luzapenaren gehigarri hau sinatzen dute, modu elektronikoan eta ondorio bakarrerako.

Estatistikako Institutu Nazionaleko presidentea,
JUAN MANUEL RODRÍGUEZ POO.

Data: 2022/06/17 14:02

Euskal Estatistika Erakundeko zuzendari nagusia,
JOSU MIRENA IRADI ARRIETA.

Data: 2022/06/15 08:46